

ATE IREKIEN JARDUNALDIA KONPOSIZIOA 2020ko OTSAILAren 18a

2020ko OTSAILAren 18an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **konposizio** espezialitatean. Bertan Gabriel Erkoreka, Zuriñe F. Gerenabarrena, Stefano Scarani eta Ramón Lazkano irakasleek parte hartuko dute.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten konposizio ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke. Bi motatako ikasleak egongo dira:

- Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten konposizio ikasleak.
- Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunean eskura duzen **izen-emate orriaren** bitartez

Jardunaldiaren helburuak

- Espezialitatearen irakaskuntzaren berezitasunak azaltzea.
- Espezialitateko irakasleekin lehen kontaktua izatea.
- Sarrera-proben edukia eta ikastegiaren aukerak zehaztea.
- Etortzen direnen eta etorkizuneko ikasleen beharrei eta zalantzei erantzutea.
- Musikenen ikasteak dituen abantailak, zehaztasunak eta ezaugarriak azaltzea.
- Ikastegia kanpoko begiradei zabaltzea.

Lan-egitasmoa

10.30: Ate irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Konposizio espezialitatearen ikasketa-planari buruzko informazioa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben, ikasketa amaierako azterketen, jardura akademiko eta ez akademikoen, Erasmusen eta ikastegiaren ekipamenduaren inguruko azalpenak.

11.50-12.00: Tailer instrumentalari bisita.

Bisitariak entzule modura hartuko dute parte Gabriela de Esteban irakaslearen tailer instrumentalean. Bertan konposizio ikasleak egongo dira beraiek sortutako obrak talde instrumental batekin saioak egiten.

12.00-12.10: Konposizio tailerrari bisita.

Raphaël Cendo irakasle gonbidatuaren konposizio tailerrean entzule modura parte hartu ahal izango dute bisitariak, bere musika aurkezteko mintegian zehar.

12.10-12.30: Ikastegiko instalazioei bisita laburra.

Mediateka eta elektroakustika eta ikus entzunezkoen Laborategia (ahal izanez gero elektronika eta/edo ikus entzunezkoetan egindako proiektuen bat erakutsiko da adibide modura).

12.30-14.00: espezialitateko irakasleekin elkarrizketak bakarka.

Erkoreka, Lazkano, Gerenabarrena eta Scarani irakasleek banaka emango die arreta hala nahi duen bisitari orori. Elkarrizketa hauen helburuak dira, besteak beste, balizko hautagaiei aholku ematea da (hautagaiek lanen bat aurkez dezakete irakasleak gainetik komentatu edo baloratzeko), galderei erantzutea, kontaktu pertsonala izatea, eta hala nahi duenari lan saio indibiduala eskaintzea (bi aldeen artean adostutako data batean).

14.00 Agurra eta Ate Irekien jardunaldiaren amaiera.

Non egingo den

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Konposizio, Analisi, Zuzendaritza eta Teknologien
Dapartamentu Buruarekin: M^a Eugenia Luc mluc@musikene.eus